

HAURTZARO ARLORAKO MATERIALA**“ERDU - TE INVITO”****1. Sarrera (oinarriak).**

- SENTSIBILITATEZ EGIN BEHAR DUGU BIDEA, bost zentzumenak aktibatu behar ditugu, topaketarako prestatu, pobrezia edo bazterkeria egoeran dauden pertsonengana modu natural batean gerturatu eta justiziaren alde lan egin.
- Komunitate solidarioa izan behar dugu, abegitsua eta alaia, topaketa eta bizipenen bidez pertsona babesgabeenen bizimoduan laguntzeko.
- Gabonak: Argi eta itxaropen sasoi. Migratzaile, errefuxiatu eta beste kultura eta erlijio batzuetako pertsonengana begirada zabaltzeko sasoi.
- Jesus ere kanpotarra zen; emigratu egin behar izan zuen. Orain, berak gure bihotza zabaltzera animatu nahi gaitu, harresiak jartzen dituzten, axolagabekeria edota gorrota sortzen duten aurreiritziak albo batera uztera. Gure zentzumenak zorroztu eta gure kristau balioekin sintonizatu behar dugu, pertsoneri begiratu eta ondo ikusteko, beren azalaren kolorea, erlijioa, jatorria edota janzkera edozein dela ere.

“Zuen herritarren bat zorrak egin eta zuekin zituen betebeharrei aurre egin ezinik aurkitzen bada, lagundu egingo diozue eta bizirik irauteko modua emango, zuen artean bizi den etorkinari bezala”.

Lebitarrena, 25:35

2. Dinamika

Lau edo bost hurreko taldeak egingo dira. Zirkulu bat duen etxearen orria emango zaie, eta zirkulu txikiz eta koloretako lauki batez osatutako fitxa. Azken horrek haur taldea irudikatzen du. Fitxako zirkulu txikiak eta laukia eta etxea irudikatzen duen orriko zirkulua mozteko eskatuko zaie (zirkulu hori bota egingo da). Haurrei azalduko zaie (zirkulu txikiak eta laukia) etxe handira sartuko direla jolastera, eta sarrerako atea orrian moztutako forma borobila dela. Ate horretatik sartu beharko dira haurrak (figurak). Ideia da haur guztiak etxe barruan jolastu ahal izatea. Haur guztiak sartzeko modua aurkitu beharko dute, bakoitza den moduan.


Dinamizatzailea taldez talde joango da, erabakiak nola hartzen dituzten eta haur guztiak sartzeko zein erabaki hartu dituzten ikusteko. 5-10 minutu utziko zaizkie.

Ondoren, galdetuko zaie ea haur guztiak etxe barruan dauden, eta nola lortu duten. Akordio batera heldu dira edo taldeko haur batek edo bik erabaki dute? Jarraitzeko, “Las cuatro esquinitas de nada” ipuinaren bideoa jarriko da.

3. Ipuina

“Por cuatro esquinitas de nada
“<https://www.youtube.com/watch?v=likZuOFFar4>
Denen artean komentatzeko galdera batzuk egingo dira:

Nor da “Cuadradito”?
Nola sentitzen zen Cuadradito Etxe Handian sartu ezin zuenean?
Zergatik ezin zuen Cuadraditok etxean sartu, besteen moduan?
Zer egin zuten Zirkulutxoek Cuadraditori laguntzeko?
Nola sentituko zinatekete Zirkulutxoak bazinate eta zuekin jolastu ezin duen Cuadradito lagun bat izango bazenute?



4. Otoitza.

Dinamika eta ipuinaren bidez partekatu duguna gogoan hartu, eta otoitzera eramango dugu.
Kaixo Jesus, lagun, anaia eta Jainko maitea.

Zein ondo sentitzen naizen...
norbaitek laguntza ematen didanean bihotzez,
norbaitek bihotzez entzuten didanean,
norbaitek bihotzez hitz egiten didanean,
norbaitek bihotzez harrera egiten didanean,
norbait nigatik kezkatzen denean bere bihotz barruan naukalako,
norbaiti bihotzak min ematen dionean ni sufritzen ikusita,
norbaitek bere denbora bihotzez eskaintzen didanean.

Horrela maite nauzu zuk, Jesus.
Zuk esan zenuen esaldi bat ez nuke inoiz ahaztu nahi.
“Egin besteei besteek zuri egitea gustatuko litzaizukeena.”
Zure Jesusek bihotz handiko pertsonak izan gaitzezen nahi du.
Nola aldatuko litzatekeen mundua denok horrelakoak izango bagina.
Zenbat min ematen diguten pertsona bihozgabeak,
hotzak, bihotz-gogorrek eta berekoiak direnek.
Ez nazazu utzi horrelakoak izaten.








5. Amaiera

Keinu txiki hauetakoren bat egitera animatu nahi zaituztegu, pertsona guztiei beren kolore, janzkera, iritzi eta abarretik harago begiratzeko. Proposatu ahal zaie bi edo hiru hartzea, ikasturtean zehar ekintza jakin batzuk burutzeko konpromisoa har dezaten. Otsailean konpromisoak errebisatuko dira.

1. Jendea ondo tratatu, besteek zu tratatzea nahiko zenukeen moduan.
2. Edukazioz jokatu.
3. Pertsona guztiak baloratu.
4. Besteen ideiak kontuan hartu.
5. Gaizki-ulertuak hitz eginez konpontzen dira, besteak epaitu gabe.
6. Gertatutakoaz hitz egin, inplikaturako pertsonekin. Komentario okerrekin eta zurrumurruekin ez gaituzte inora eramaten.
7. Errespetua tolerantzia da: Baloratu desberdintasunak.
8. Errespetua modu askotan adieraz daiteke: Entzunez, aurreiritziak alde batera utziz, adeitasunez, beste pertsonaren lekuan jarriz...
9. Itxuraz eta arropaz harago... oso desberdinak diruditen pertsonak ezagutzen saiatuko gara. Gauzak ez dira diruditena.
10. Norberaren ideiak adierazteko adorea izan behar dugu, besteen ideiak ere aintzat hartuz.

Lanerako fitxa: Cuatro esquinitas de nada. Moztu figurak.





erdu

te invito

